



### KONPROMISUAK

Aniztasunaren erantzuna koordinatzen duen batzordearen eskuetan dago formakuntzaren koordinazioa, nahiz eta interloktore bat izendatu

**Proiektuaren Koordinatzailearen eginkizunak:**  
Partaideen beharrak jaso eta emalearekin partekatu.  
Prozesuaren zehar adostutakoa idatziz jaso.  
Taldea lana dinamizatu eta jarraipena egin.

**Partaideen eginkizunak:**  
Erabiliko diren baliabideak antolatu.  
Zuzendaritzaren inplikazioa.  
Irakasle parte-hartzaile guztiak aurrez helburu eta edukien jakitun egon.

Prestakuntza-saioetan proposatutako jarduerak gelan inplementatu eta ziklo mailan egindakoaren ebidentziak azaldu, aldez aurretik adostutako maiztasunarekin.

**Aholkulariaren eginkizunak:**

Oinarri teorikoak eskaini.  
Praktika erraztuko duten erraminten diseinuan bidelaguna izan.  
Estrategiaren inplementazioan sor daitezkeen gorabeheren azterketan parte hartu.  
Formakuntza prozesuaren jarraipenean parte hartu.

### Bi irakasle gelan

4 saio

8 ordu

8 ikasgelan



### HELBURUAK

1. Ikasleen inklusioa eta eskola arrakasta lortzea.
2. Beste irakaslearengandik ikastea, praktikak elkar trukatzeko.
3. Ikasleei testuinguru naturalean, erreferentzia gelan, laguntzak ematea.
4. Eskolak dauzkan baliabideak optimizatzea:  
Irakasleen arteko komunikazioa erraztea (aldizkakotasuna, sakontasuna)  
Ikaslearekiko ezagutza partekatzea  
Eskuhartzerako irizpideak adostea  
Ikaslearen prozesuaren ebaluazioa hobetzea.



### EDUKIAK

Bi irakasle gelan: laguntza motak

Bi irakasleen arteko lankidetzarako baldintzak: elkarren arteko konfidantza, aintzat hartua izatea, komunikazio eta lankidetzarako espazioak sortzea...

Partekatutako saioen planifikazioa: eduki motak, jarduera tipoak eta eskuhartzeko estiloa.

Bi irakasle gelan strategiaren balorazioa egiteko irizpideak



### EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- 1. Eskola, etapa eta ziklo mailan onartzen da bi irakasle gelan aniztasunari erantzuteko estrategia bat dela.
- 2. Batera aritu behar diren irakasleak adostu dute zein arlotan eta zenbat saiotan egongo diran.
- 3. Eskuhartzea planifikatzeko irakasle bakoitzaren funtzioak eta zereginak adostu dira.
- 4.1. Hizkuntza, Matematika eta Zientzia eta Gizarte arloen lankidetzarako saio baten sekuentzia eredu diseinatu eta praktikara eraman da.
- 4.2. Ziklo eta etapa mailako koordinazio bileretan batera aritzen diren zenbait irakasle adierazi dute lankidetzan eta konfidantzazko harremanak dituztela eta zailtasunak errekonozitzearekin batera hobetzeko proposamenak ere luzatzen dituztela.